

## 1.1.2 GAIAREN LANKETA

### > Nor, nolakoa, zer zara zu?



#### - Nor zara zu?

- Euskal izenak eta abizenak

#### Helburuak

- Hainbat euskal izen eta abizen ikastea.
- Izenak eta abizenak bestelako hitzetatik ezberdintzea.

#### Prozedura

- Lehenik eta behin, umeei A fitxa banatu.
- Denen artean, ezagutzen dituzten euskal izenak eta abizenak zerrendatu. Hezitzaileak zerrenda arbelean idatzi eta gero, ume bakoitzak bere fitxan idatzi. Hasi nesken izenak zerrendatzen, gero mutilenak eta, bukatzeko, abizenak.
- Umeek dakizkiten izen eta abizen guztiak esandakoan, hezitzaileak gehiago esan eta idatzi.
- Euskal izen eta abizenak zerrendatu ostean, umeen herrialdeetakoak egin. Umeei B fitxa banatu eta euskal izenekin eta abizenekin egin den gauza bera egin. Ez nahastu neskak, mutilak eta abizenak; bakoitzari bere tarte eman.

#### Oharrak

- Umeek hasieran, izenak eta abizenak hitzekin nahasten dituzte. Komeni da ahalik eta zerrenda luzeena egitea.
- <http://www.euskaltzaindia.net/eoda> Bertan euskal izen eta abizenak aurkituko dituzu.